

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKADIKO TOKI ERAKUNDEEN TXOSTENARI BURUZKOA, 2009

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Euskadiko Toki Erakundeen gaineko txostena jaulki du, 2009ko ekitaldiari buruzkoa. Txostena aho batez onetsi dute HKEEren Osokoaren kideek.

Erakunde fiskalizatzaileak EA Eren udalen eta udalaz gaindiko erakundeen Kontu Orokorrak aztertu ditu, eduki formala eta toki alorraren finantza egoera balio-neurtzen duela. 251 udaletatik 243 udalen Kontuak aztertu dira eta udalaz gaindiko 63 erakundeetatik, 54renak. Txostenean, gainera, kontuak aurkeztu ez dituzten udal eta udalaz gaindiko erakundeak bereizi dira.

Udalen finantza egoerari dagokionez, txostenak azpimarratu du 2009/12/31n erabilitako batez besteko zorpetzea udaleko sarrera arrunten gainean % 3,48koa izan dela. Biztanleko batez besteko zorpetzea 243 eurokoa da. Guztira 72 udalek ez dute zorpetzerik eta 28 udalek, berriz, biztanleko baliatutako zorraren batez bestekoa gaintitzen dute.

Halaber, inbertsio garbiak aurreko ekitaldiarekiko % 66ko igoaldia izan duela azaleratu da eta horrek biztanleko 460 euro egiten ditu batez beste.

Presio fiskala (zerga zuzenak, zeharkakoak, tasak eta bestelako sarrerak) biztanleko euroetan neurtuta 502 eurora arte igo da, 2008ko ekitaldian zuen maila berera.

Udalaz gaindiko erakundeei dagokien zorpetzeak % 12an gaintitu du aurreko urtekoa eta 514 milioi euro egin ditu guztira. Zor honen zatirik handiena, % 83, Bizkaiko Garraio Partzuergoaren jabetzakoa da.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak txostenean adierazi du erakunde hauek ematen dituzten zerbitzuen kostua, uraren hornidura eta saneamendua, garraio eta baso aprobetxamendua salbuetsita, nagusiki horietan partaide diren udaletatik edo beste erakunde batzuetatik jasotako diru-laguntza arrunten bitartez finantzatzen dela.

Txostenari gehitutako eranskinetan, gainera, kontuak auditatuak dituzten udalen zerrendaz gain, horietan azaleratu diren hutsen zerrenda eta udalen araberako xehapena ere aurkeztu da. Berebat, HKEEren web orriko lotuneari buruzko informazioa ere ematen da; bertan erantsitako likidazioak ez ezik, erakundeen arabera xehatutako ekonomia-finantza izaerako hainbat informazio ere eskura daiteke.